# *Zer iritzi duzu 'Gran Hermano' saioaren gainean?* /7


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko apirilaren 20a • II. urtea • 18. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**Goienka2a**
**RIP musika taldearen bigarren gaztaroa**

**HERRIZ HERRI**
**Sagardogileen eguna ospatuko dute Aramaion San Prudentzio egunean /4**

**PACO GARCIA**
*"EAJk urte askotxo daramatza gobernatzen eta hori ez da ona demokraziarentzat"* **/9**

## KIROLA: ZIKLOTURISTA TALDEEK AURTENGO DENBORALDIARI HASIERA EMAN DIOTE /10

## *Debogoiendarrak Legebiltzarrerako zerrendetan*



**Blanca Roncal**
**PSE-EE**
Mondragoetarra. Laugarrena Gipuzkoako zerrendan.



**Mireia Unamuno**
**EH**
Antzuolarra. Seigarrena Gipuzkoako zerrendan.



**Rafael Uribarren**
**EAJ-EA**
Mondragoetarra. Hamargarrena Gipuzkoako zerrendan.



**Iñaki Nafarrate**
**EAJ-EA**
Aramaioarra. Hamabosgarrena Arabako zerrendan.



**Xabier Zubizarreta**
**EH**
Aretxabaletarra. Hemezazpigarrena Gipuzkoako zerrendan.



**Pello Urizar**
**EAJ-EA**
Mondragoetarra. Hemezortzigarrena Gipuzkoako zerrendan.



**Joseba Ugalde**
**EB-IU**
Mondragoetarra. Hemeretzigarrena Gipuzkoako zerrendan.

# Urkulu: bailarako egarri asetzaile

Urkuluko urtegiak Debagoieneko herrien ur beharrak betetzen ditu. Zazpi herrik "edaten" dute bertako ura: Eskoriatzak, Aretxabaletak, Arrasatek, Oñatik, Bergarak, Elgetak eta Soraluzek. Aramaion eta Antzuolan, ostera, ez dute hartzen Urkuluko urik.

Herri horietan bakoitzak bere urtegiak ditu eta udala arduratzen da horien mantenuaz. Antzuolako kasuan, hala ere, proiektua lehiaketara atera zuten, eta Bergaratik zehar igarota eramango dute Antzuolaraino. Ia 70 mila lagunen egarria asetzen du, beraz, Urkuluk.

**Zazpi herrik hartzen dute ura Urkulutik, Debagoieneko seik eta Soraluzek, guztira, 70.000 lagun inguruk**

**Eskoriatza da ur gehien kontsumitzen duen herria (202 metro kubiko biztanleko urtean). Gutxien, Arrasate (86)**

Ur partzuergoak emandako datuen arabera, ura hartzen dutenetatik gehien kontsumitzen duena Eskoriatza da (202 metro kubiko biztanleko urtean) eta gutxien Arrasate (86 metro kubiko).

Urkuluko urtegiaren egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiarena izan zen. Bertako lanak 1975ean hasi ziren, eta bost urte inguruan amaituak ziren. Dikea dagoen lekuan Urkulu izeneko errota zegoelako jarri zioten izen hori urtegiari. Kurtzebarri mendiko iparraldetik datozen ia ur guztiak jasotzen ditu, baina batez ere Urkulu eta Bolibar erreketatik datozen urak.

Urkulu, esan daiteke segurtasun-neurri handiak dituen urtegia dela. Urtegia berez ez da puskatu daitekeen pareta bat. Txoko bat bilatu zuten, eta mendi artifizial bat egin zuten urari eusteko. Mendi horrek, 150 metro ditu aldenik alde, altueran 50 eta zabaleran 200 metro inguru. Urkuluren gaineko erreportajea landu dugu. **/4**

## Babestutako 30 etxebizitza egingo dituzte Elgetan

Elgetan 116 etxebizitza berri egingo dituzte, horietatik 30 babes ofizialekoak. Etxeak egiteko bi gune daude izendatuta: batetik, lehen Dormicoop zen lantegian 55 etxebizitza egitea aztertuko dute; bestetik, Torrealdean 61 etxebizitza.

Elgetako Udalak eta Jaurlaritzak adostu dute gutxienez 30 babes ofizialekoak izan litezkeela. Honek esan gurako luke, 85m² eta 75m²ko etxeak izango liratekeela, eta garaje, trasteleku eta guzti, 14-15 milioi inguruan salduko lituzketela. **/5**







KIROLA/10-11 • KULTURA/14-15 • NON ZER/16-17 • BERRI-ZAZUA /19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/23

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko apirilaren 20a

# Urkulu

## *Zazpi herrik hartzen dute ura Urkulutik: bailarako seik eta Soraluzek, hau da, 70 mila lagunek*

IBAN ARANTZABAL

**Azatza eta Korueta auzoetako hainbat baserri urpean geratzea onerako edo txarrerako izan den batek baino gehiagok eztabaidatuko duen arren, esan dezakegu, Urkulu, Debagoieneko herrien ur beharrak betetzera heldu dela. Aramaion eta Antzuolan ez dute hartzen Urkuluko urik. Herri horietan bakoitzak bere urtegiak ditu, eta Udala arduratzen da horien mantenuaz. Antzuolako kasuan, hala ere, proiektua lehiaketara atera zuten, eta Bergaratik zehar igarota eramango dute Antzuolaraino.**

25 urtetik gora dira Urkulun lanak hasi zituztenetik. Aldundiaren proiektua izan zen, eta helburutzat Leintz bailarako herriek ura izatea zuen. Eskasia handiena Arrasatek zuen, baina beste herriek ere ur emaria ziurtatze aldera, Urkulu hartu zuten ur eskasiaren irtenbidetzat, izan ere, populazioak gora egin zuen garai hartan, eta enpresa jardunak izan zuen gorakadak, ura harribitxi izatea eragin zuen, batez ere uda aldean.

Urkuluko urtegiaren egitasmoa Gipuzkoako Foru Aldundiarena izan zen. Bertako lanak 1975ean hasi ziren, eta bost urte inguruan amaituak ziren. Lan horiek egiteak Koruetako hamar baserri eta Azatzako bost, urpean geratzea eragin zuen.

Koruetan desagertutakoak: Mendikurtza, Ubaa (Ubao), Errota-zahar, Dixatz (Dixa-etxe), Siondo-behekoa, Siondo-goikoa, Barrutikoa, Uxar-haundi (Urizar-haundi), Uxar-txiki (Urizartxiki) eta Urkulu izan ziren.

Azatzan, berriz: Añabarra (Ariznabarreta), Aldaixena, Okiña, Sarbiarte eta Zelaikua. Baserri horietan guztietan jendea bizi ez bazen ere, gehienetan hainbat familiak egiten zuen eguneroko bizitza.

Dikea dagoen lekuan Urkulu izeneko errota zegoelako jarri zioten izen hori urtegiari. Kurtzebarri mendiko iparraldetik datozen ia ur guztiak jasotzen ditu, baina batez ere Urkulu eta Bolibar erreketatik datozen urak. Urkulutik gaur egun zortzi herrik edaten dute: Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Oñati, Elgeta, Antzuola eta Soraluzek. Ia 70 mila lagunen egarria asetzen du, beraz, Urkuluk.

#### SEGURITATE NEURRI ONAK KALITATE ONA BERMATZEKO

Urkulu, esan daiteke segurtasun-neurri handiak dituen urtegia dela. Urtegia berez ez da puskatu daitekeen pareta bat. Txoko bat bilatu zuten, eta mendi artifizial bat egin zuten urari eusteko. Mendi horrek, sakonean 150 metro ditu luzeran, altueran 50 eta zabaleran 200 metro inguru. Triangelu itxura duen mendi artifiziala da beraz. Mendi hori, hautsi ez da hausten. Ura eusteko balio du horrek, hala ere, urak ihesbiderik izan ez dezan, porlanarekin egindako pantaila bat dauka aurrean. Ur asko egon eta urtegiak ezin eutsi ahal izan baino lehen, baditu gainezka egin baino lehenago zabaltzen diren ate handi batzuk ere.

Argindarra, alarmak, sistema guztia, hoditeria eta gainontzekoak ere bikoiztuak daude, eta horrek ere segurtasunean laguntzen du. Berritasunak ere egiten dituzte, eta mantenuan nabarmentzen dira gehien. Barrualdeko makineria berrizten dute, kanpoko paretan egin zituzten konponketak... Presa berria da Urkulukoa, eta ez du aparteko inbertsiorik behar izan.

Segurtasuna ere aipatu dugu, eta aisialdirako erabiliko dutela ere zabaldu da. Horren aurrean, Josetxo Saizarrek argi laga du motorra behar duten untziak eta abar debekatuak egoten jarraituko dutela, eta izatekotan, bela edo piraguismoa moduko kirolak egiteko erabiliko dutela. Igeriketa ere debekatua dago Urkulun, eta ez da kutsaduragatik, urtegi batean igeri egiteak duen segurtasun murriztuagatik baizik. Edozein adar, harri... aurkitu daiteke, eta segurtasuna bermatu barik ez dago igeri egiterik.

#### ARAZKETA

Orain dela 20 urte inauguratu zuten arren, 12 urte dela jarri zen martxan araztegia. Egun, segundoko 500 litro tratatzeko ahalmena du araztegiak, eta kontsumoa 220 l/sg-koa izanik, ondo baino hobeto erantzuten dio eskaerari. Hasiera batean araztegia Foru Aldundiarena bazen ere, gaur egun, Gipuzkoako Ur Partzuergoarena da, eta berau da ura bildu, garbitu, eta herrietako ur biltegietarako bitarteko horniketa bere gain hartzen duena.

#### ARAZTEKO PROZESUA

Urkulu urtegitik hodi bidez heltzen da ura araztegira, eta kalitate oneko ura lortzeko hainbat pauso eman beharra dago.

Bi linea daude eta bakoitzak 250 l/sgko ekoizten du. Helburua da Urkulutik Eibar ere hornitzea, izan ere, Urkuluk badu Eibarrera ere ura eramateko gaitasuna.

Lehenik eta behin mini-zentral hidrauliko batekin zenbat ur sartzen den erregulatu behar dute. Ura erregulatzeaz gain, bide batez, indar elektrikoa produzitzen dute. Preozonizazio fasetik iragaten da ura, ozonoak, urak dituen bakterioak, materia organikoak, burnia, manganesoa... oxidatzen ditu, eta erreaktibo baten bidez, oxidatu diren elementu horiek uretatik bereiziko dira.

Dekantaziotik pasatzen da gero. Aukera dago bitarteko ozonizazio fase batean sartzeko, eta gero hondarrezko iragazki batzuetatik pasatzeko. Ura, prozesuaren zati horretan araztuta geratuko litzateke.

Ondoren, desinfektatu beharra dago, eta horretarako kloroa eta fluorra erabiltzen dituzte. Legediak horrelaxe egitea agintzen dut. Lokatzak ere tratatzen dituzte, eta sortutako guztiak lehortzeko tratamendu berezia egiten diote urari.

#### FLUORAZIOA EZTABAIDATUA IZAN DA

Fluorazioak ekarri du zalapartarik, eta aspaldian asko entzuten ez den arren, herri mugimendu batzuek kexatu ziren ura fluoratzea aukera pertsonala izan behar zela aldarrikatuz. Hala ere, ur partzuergoko Josetxo Saizarrek esan digun moduan, "badago legedi bat ura fluoratu egin behar dela agintzen duena, eta horrela izanik, gu lege horiek betetzen saiatzen gara". Osakidetzak bere alde onak esaten zituen, eta bestetik badaude, ura medikalizatzea dela esaten dutenak. Ur Partzuergotik, uztiatzaile diren aldetik legeak betetzera murrizten dute beraien jarduna. Fluorazioa aurrera eramateko tresneria guztia Jaurlaritzak subentzionatu zuen.

### Nork gastatzen du ur litro gehien?

| Herria | Urtean | Egunean | Biztanleko (urtean) |
|---|---|---|---|
| Arrasate | 2.086.553 | 5.717 | 86 |
| Aretxabaleta | 857.463 | 2.349 | 143 |
| Bergara | 1.893.564 | 5.188 | 125 |
| Elgeta | 85.489 | 234 | 87 |
| Eskoriatza | 805.245 | 2.206 | 202 |
| Oñati | 1.599.043 | 4.381 | 150 |
| Soraluze | 282.953 | 775 | - |
| Denera | 7.610.310 | 20.850 | |

Ur partzuergotik ura hartzen dutenetatik gehien kontsumitzen duena Eskoriatza da eta gutxien Arrasate.

### Urkuluko datu orokorrak

| | |
|---|---|
| Lanen aurrekontua: | 380 milioi |
| Urtegiaren edukiera: | 10 milioi $m^3$ |
| Urtegiak hartutako lurraren azalera: | milioi bat $m^2$ |
| Inguratzen duen bidearen luzera: | 6.800 m |
| Hodi eta hustubide galerien neurriak: | |
| | Luzera: 155 m |
| | Altuera: 4,20 m |
| | Zabalera: 4,50 m |
| Erabilitako materiala: | |
| | Porlana: 4.650 $m^3$ |
| | Burdina: 180.000 kilo |



ARGAZKIAK: ARETXAGAZETA

Urkulu betetzen hasi zela 25 urte igaro dira. Ordutik hona, asko aldatu da hango paisaia; hain da horrela, lehen bederatzi baserri zeuden lekuan orain milioi bat metro koadroko azaleran hamar milioi metro kubikoko urtegia egin dela. Urkulu izena urpean geratu den izen bereko baserritik hartu dute, dagoeneko ahaztuta dagoen baserritik.



Lehorterik izan ez duen urtegi horretan, uraren kalitatea uneoro aztertzen da. Urkuluko urtegian lan egiten dutenen egiteko nagusia horixe da, ura zaintzea, edo bestela esanda, ura edateko modukoa izan dadin jardutea. Ezerk huts egin ez dezan, sistema guztia bikoiztua dago, hasi ura igarotzen den hoditeriatik eta argindarreraino.



Urkuluko araztegia putzutik 300 metrora dago, eta hantxe formula hau betetzen saiatzen dira: 2 x 250 CH + (preO3 + DR) + DEC + (O3 Inter ) + FLT + (Cl2 + F) + TrFn. Horrela laburtzen da arazketa prozesu guztia. Hasiera batean, araztegia Foru Aldundiarena bazen ere, orain, Gipuzkoako Ur Partzuergoarena da.

# Bailaran, labur

## HAUTESKUNDEAK

### Zazpi debagoiendar Legebiltzarrerako hautagaien zerrendetan

Zazpi debagoiendar izango ditugu maiatzaren 13ko bozketetarako alderdi politikoek prestatu dituzten hautagaien zerrendetan. Bik izan ezik, beste guztiek ez dute aukerarik izango hautatuak izateko, zerrendetan atzean doazelako. Blanca Roncal PSE-EEk Gipuzkoan aurkeztu duen zerrendan laugarren doa, eta legebiltzarkide izateko aukera handiak ditu. Mireia Unamuno, bestalde, seigarren doa EHren Gipuzkoako zerrendan, eta berak ere badu aukera. Besteak honako hauek dira: Rafel Uribarren, Iñaki Naffare eta Pello Urizar (EAJ-EA); Xabier Zubizarreta (EH) eta Joseba Ugalde (IU-EB). /ENEKO AZKARATE

## HEZKUNTZA

### Mondragon Unibertsitateak Ordiziako campusa zabaldu du oraingo astean

Mondragon Unibertsitateak (MU) Ordiziako campus berria zabaldu zuen eguaztenean. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak inauguratu zuen unibertsitatea. Goierri Goi Maila Eskolarekin sinatutako hitzarmenaren bitartez, datorren ikasturtetik aurrera Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoko ikasketak eskainiko dituzte campusean. Lehen ikasturtean, 200 ikasle inguru hartuko ditu campusak, eta lau urteren buruan, 500 bat izatea espero dute. MUko errektore Javier Retegik esan zuenez, "Debagoienean MUk egindako ekarpena beste eskualde batzuetara zabaltzea da helburua". /E.A.

## ABERRI EGUNA

### Ikurrina bailarako udaletxeetako balkoietan, Aberri Eguna ospatzeko

Udalbiltzak egindako deiari erantzunez, ikurrina jarri zuten Debagoieneko udaletxeetan Aberri Egunean. Hainbat etxetan ere jarri zituzten ikurrinak. Bestalde, hainbat ekitaldi egin zituzten eguerdi partean udaletxe kanpoaldeetan, eta manifestuak irakurri zituzten. /E.A.

## ENPRESAK

### Kalitatezko Q saria eman die Ibarretxe lehendakariak Copreciko buruei

Gestio ona saritzen duen Kalitatezko Urrezko Q saria eman zion Aste Santu aurretik Ibarretxe lehendakariak Copreciko gerente Javier Oleagari. Lehendakariak Aretxabaletako lantegira egindako bisitaldian eman zion saria. Urrezko Q saria jasotzen duen bigarren enpresa da Copreci. /SAIOA OJANGUREN

## BAKEA

### Milaka lagunek hartu zuten parte bakearen aldeko ibilaldian Arantzazun

Eguraldiak lagundu ez arren, Euskal Herri osotik etorritako 10.000 bat lagun elkartu ziren Erramu Zapatu egunean Arantzazura egindako bakearen aldeko ibilaldian. Juan Maria Uriarte Gipuzkoako gotzaina buru zela otoitzean egin zuten Oñatitik Arantzazura arteko 8 kilometroak. "Guztion artean, bakea guztion alde" izan zen santutegira eroan zuten leloa. /LOREA AGIRIANO

## GREBA DEIALDIA

### Ostalaritzan eta merkataritzan eragina izan bazuen ere, erantzun txikia grebak

Askotariko erantzuna izan zuen EHk apirilaren 10erako burujabetzaren alde egindako greba deialdiak. Arrasaten eta, oro har, Leintz aldean izan zuen eragin handiena, bereziki, dendari txiki eta tabernarien artean. Lantegi gehienetan, ostera, lan egin zuten. Hainbat kale agerraldi egin zituzten bailarako herrietan. /E.A.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko apirilaren 20a

**ARAMAIO** SAGARDOGILEEN EGUNA

## Mikel Arantzabal/ Txirritola elkarteko kidea

# *"Aramaioko sagardogileek egun berezi bat merezi dutela uste dugu"*

UBANE MADERA



Datorren zapatua berezia izango da Aramaion, eta ez Arabako patroiaren (San Prudentzio) eguna delako, ez. Aramaioarrendako, egun hori herriko Sagardogileen Eguna izango da. Jai hori antolatzen duten lehenengo aldia da, eta arrazoia sinplea da: antzinako ohitura hau bizirik gordetzen duten herriko sagardogileei nolabaiteko errekonozimendua egitea. Halaxe kontatu digu Mikel Arantzabalek, Sagardogileen Eguna antolatu duen Txirritola elkarteko kideak:

**Zelatan antolatu duzue egun berezi hori?**

Prentsaren eta telebistaren bidez, beti ikusi izan dugu sagardoa Hernani, Astigarraga eta inguru haietan egiten dela; guk, ostera, uste dugu sagardoa ez dela bakarrik han egiten, hemen ere egiten da, eta betidanik, gainera. Hortaz, pentsatu genuen Aramaioko sagardogileek merezi dutela eurei egun bat eskaintzea. Eta Sagardogileen Eguna antolatzeko, Aramaion zenbat sagardogile dagoen zenbatzen hasi ginen, eta harritu egin ginen, 12 daude eta. Bik sagardo hori saldu egiten dute eta besteak etxeko kontsumorako egiten dute. Baina, guretako berdin da, azken baten, gure asmoa zen herrian betidanik egin den produktu hori kalera ateratzea. Eta horrelaxe erabaki genuen sagardogileei egun bat eskaintzea.

**Zenbat jende elkartuko zarete?**

Hamabi horietatik, hamarrek baiezkoa eman digute, hortaz, baserritarrei dagokienez, horretxek.

**Eta Aramaiora doanak zer ikusiko du zapatuan?**

Gure asmoa da baserritarrak plazara ekartzea. Baserritar bakoitzak bere produktuak eskaini ahal izango ditu. Orduan, datorrenak baserritar guztien produktuak dastatzeko aukera izango du. Gure aldetik, txorizo muturrak eta salda banatuko ditugu, mokadutxoa hartzeko, eta uste dut egun polita izan daitekeela. 11:30etik 14:00etara izango da.

**Aurtengo sagardoa...**

Egia esan, nik neuk oraindik ez dut probatu... edozelan ere, itxura denez, aurten, nahiko berandu etorri da sagardoa... Zapatuan dastatuko dugu!

**Sagardoa errebindikatu egin behar da? Zergatik?**

Bai. Hemengo produktua da, gainera, natural-naturala, ez du kimikarik ezta bestelako prozesu gehigarririk ere. Eta Hernanin eta Astigarragan ona bada, hemengoa ere ona izango da, ezta?

**ESKORIATZA** PILOTA HARROBIA



Ezin hobeto aritu dira Eskoriatzako pilotari gazteak. LOREA AGIRRE

# Herriko pilotari gazteak bikain Udaberri txapelketan

*Deba arrokoan ere primeran aritu dira*

IÑIGO BIAIN

Eskoriatzako pilotari gazteek emaitza bikainak lortu dituzte azkenaldian. Batetik, Gipuzkoa osoko bikoteek parte hartzen duten Udaberri txapelketan, kadete mailan, Axpek eta Abasolok osatutako bikotea txapeldun izan zen. Jubenil mailan, ostera, Abarrategi eta Errarte II. azpitxapeldun gelditu ziren, eta senior mailan emaitza hau errepikatu zuten Dominguezek eta Errarte I.ak.

Deba arroko txapelketan ere emaitzak oso onak izan badira ere, finalean ez da eskoriatzarrik izango. Kadeteak eta jubenilak final erdietaraino heldu ziren, baina ezin izan dute aurrerago jo. Final erdiotako itzulerako partiduak herenegun jokatu ziren Eskoriatzan. Kadete mailan, Axpek eta Martinezek 17-22 galdu zuten Soraluzeko Txurruka eta Rodriguezen aurka, eta jubenil mailan Abarrategik eta Errarte II.ak 20-22koa egin zuten Eibarko Etxaniz eta Agirrebeñaren kontra.

**OÑATI** TUNELAREN KONPONKETA

# San Lorentzo eta Errekalde arteko tunela konponduko dute

*Kexak jaso dituzte tunelaren egoeragatik*

AINTZANE IRIZAR

San Lorentzo eta Errekalde Oñatiko auzo handienetakoak dira, eta kexa azaldu dutenen arabera, jende askok erabiltzen du tunela eskolara edota lanera joateko. Bidea nahiko egoera txarrean dago: argiztatu gabe eta lurra zuloz beteta. Gainera, kexa azaldu dutenen arabera, saneamenduaren egoera txarra dela eta, euria egiten duenean, bidea ezin dute erabili ere egin.

Kexa hau zela eta, udaleko arduradunek bidearen eta tunelaren ikuskaketa egin eta konpondu beharra zegoela ikusi zuten. Bidea zuloz beteta dagoela azaldu zuten, eta tunelean dauden argi guztiak apurtuta daudela. Beraz, zuloak konpondu, argi berriak jarri, eta saneamendua aztertzea erabaki zuen udalak..

Udaleko arduradunen esanetan, "ahal bezain pronto" konponduko dute tunel hori. Izan ere, konponketa lanak egitea duela hilabete inguru onartu zuten arren, Angel Iturbe Oñatiko alkatearen esanetan, gaur egun gero eta zailagoa izaten da era horretako lanak egiteko prest dagoen enpresa bat topatzea, lanez lepo ibiltzen direlako.

**Zertzelada**

**Bi auzoak batzen dituen bidea zuloz beteta dago, eta tunelean dauden argi guztiak apurtuta; beraz, zorua konpondu egingo dute, eta argi berriak jarri**

#### ERRETZEARI UZTEKO IKASTAROA EZ DUTE EGINGO

Datorren astelehenean, apirilaren 23an, hastekoa zen erretzeari uzteko ikastaroa, bertan behera utzi behar izan dute, ez duelako behar beste jendek izena eman. Udaleko drogamenpekotasun prebentziorako departamenduak antolatu du ikastaro hau; ikastaroa aurrerago egiteko erabakia hartu dute, eta orain izena emanda dutenek lehentasuna izango dute. Bide batez, sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu nahi izan dute.

**BERGARA** ETXEA BOTA



AINTZANE IRIZAR

**Zaharren tokian berriak.** Ibargarai kalea itxuraldatzen ari da zeharo. Batez ere, eraikitzen ari diren etxe guztiengatik; eta berriei tokia egiteko zaharrak bota behar ei direnez, eguaztenean bertan, bota zuten kale horren historiaren azken lekukoetako bat argazkian ikus daitekeen bezala: Ibargaraiko 27. zenbakia, hain zuzen ere.
20. areako urbanizazio planen barruan zegoen, eta esan bezala, Ibargaraiko eremu berria eraikitzeko beste urrats bat izan da eraikina botatzea. Aurrerago, aipatutako eraikinaren ostean dagoen beste bat (Ibargaraiko antzinako azken etxea) ere bota egingo dute. Horrela, gune horretan beste etxebizitza multzo bat eraikiko dute eta horrek zezen-plaza zaharrean egiten ari direnarekin bat egingo du. /MONIKA BELASTEGI

ARRASATE | KULTURA ETXEA

# Ospitale Zaharreko kultura etxea egiten hasiko dira urtea bukatu baino lehen

UBANE MADERA

Ospitale Zaharreko lanak aurtengo urtearen bukaera baino lehen egiten hasiko dira. Halaxe adierazi dio Arrasate Irratiari Jose Ramon Arkauzek, udaleko Kultura batzordeburuak.

Gaur egun, gaztetxea dago han, eta baita beste talde batzuk ere: margo taldea, trikiti eskola eta txalaparta taldea, esaterako. Zinegotziak adierazitakoaren arabera, talde horiek Lasa pabilioira joango dira, harik eta kultura etxea egokitzeko lanak egin arte, eta urtea bukatu baino lehen izango da hori.

**INDARTSUA**

Kultura etxea indartsua izatea gura du udalak: "Erdialdean dagoenez, herritarrak elkartzeko gune garrantzitsua izango da". Eta hain justu, kultura etxerako izango dira datozen hilabeteotako inbertsiorik garrantzitsuenak. Izan ere, kultura etxean kokatuko dira, besteak beste, liburutegia, hitzaldi aretoa, 180 lagun ingururendako ikasgelak eta erakusketa aretoa.

Horren ondorioz, gaur egun liburutegia dagoen lekuan, Monterron jauregian, beste talde edo erakunde batzuendako lekua egokituko dute, baina hori oraindik zehaztu barik dauka udalak, dauden beharren arabera ezarriko du.

**GAZTETXEA UARKAPE PILOTALEKUAREN ATZEALDEAN**

Eta jakina, gaztetxeak ere beste kokaleku bat izango du: Uarkape pilotalekuaren atzeko aldean eraikin berria egingo du udalak, eta hantxe egongo da gaztetxea.

Eta gaztetxearekin batera, emakumezkoen txokoa eta herriko musika taldeendako lokalak ere egokituko dituzte eraikinean.

Izan ere, udalaren egitasmoen arabera, eraikin horrek hiru solairu izango ditu guztira.

**Zertzelada**

**Kultura etxerako izango dira inbertsiorik garrantzitsuenak. Izan ere, kultura etxean kokatuko dira liburutegia, hitzaldi aretoa, ikasgelak eta erakusketa aretoa**

ARETXABALETA | HAURTZAINDEGIA

# Belorrieta auzoan haurtzaindegia eraikiko dela-eta, hainbat kexa

*Auzokideek ez dute nahi euren etxebizitzen parean haurtzaindegirik*

AMAGOIA LASAGABASTER

Belorrietako bizilagunek, udalean aurkeztutako idatzi baten bitartez, haurtzaindegia euren etxebizitzen parean egitearen aurka daudela jakinarazi dute oraingo astean. Izan ere, haurtzaindegiak bi solairu izango ditu, eta etxebizitza batzuen aurrealdean eraikiko dute. Horren ondorioz, etxebizitza horiek garai baten zuten balioa gutxituko den beldur dira jabeak. Horregatik, auzokideek 30 sinadura batu eta eskaera egin diote udalari, haurtzaindegia toki hartan eraiki ez dadin. Gainera, Belorrietako bizilagunek adierazi dute etxebizitza erosi zutenean haurtzaindegia eraikiko zeneko informazioarik ez zutela jaso.

Udaleko Hirigintza teknikariaren esanetan, bestalde, 1992an zonalde hura urbanizatzeko proiektua egin zutenean, eskolak emateko eraikina han jartzea aurrez ikusi zuten. Horrez gain, udalak, Belorrietan lehenengo etxebizitza egiteko baimena eman aurretik, bazekien, gerora, etxebizitza horien parean eskolak emateko egoitza eraikiko zela. Etxebizitzak saldu dituen promotoreak ere bazuen eraikin horren berri. Horregatik, udalak ez ditu auzokideen kexak kontuan hartuko, eta Belorrietan, aurretik proiektua egindako tokian, eraikiko du haurtzaindegia.

Eraikina Arizmendi elkarteko Pausoka haurtzaindegiak hartuko du. Gaur egun, Pausokak garai bateko kuartelean dauka egoitza. Baina, eraikina nahiko txikia da, eta ez daukate tokirik beharren araberako zerbitzurik emateko. Horregatik, aspaldi eskatu zuten egoitza berria.

Lanak oraingo hilean hasi dituzte, eta datorren ikasturterako amaituko dituztelakoan daude.



Belorrietako lursail honetan jarriko dute haurtzaindegia. AMAGOIA LASAGABASTER

ELGETA | BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

# 116 etxebizitzatik 30 babes ofizialekoak izango dira

*Beharren gainean galdetuko diete herritarrei*

IBAN ARANTZABAL

Barruko berrikuntzaren plan berezia egitea onartu zuen Elgetako Udalak gobernu batzordean. Horrela, Toledo Taldeak egingo ditu PERI deritzoten berrikuntzak.

Etxeak egiteko bi gune daude izendatuta: batetik, lehen Dormicoop zen lantegian 55 etxebizitza egitea aztertuko dute; bestetik, Torrealdean 61 etxebizitza.

Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailarekin martxoaren 23an izandako bileran, egin beharreko etxebizitzetatik, gutxienez 30 babes ofizialekoak izan zitezkeela hitz egin zuten, honek esan gurako luke, 85m² eta 75m²ko etxeak izango liratekeela, eta garaje, trasteleku eta guzti, 14-15 milioi inguruan salduko lituzketela. 2002an hasiko lirateke lanak egiten, oraindik Torrealdean edo Salbadorren hasi erabaki ez badute ere.

Salbador kalean, etxebizitzez gain aparkalekuak egingo dituzte, eta Mendizaleen plaza hiru aldiz handiagoa egingo duen enparantza ere geratuko da etxeen artean.

Torrealdeko esparruari dagokionez, orain dagoen autoendako bidea itxiko dute, eta horren ordez Salbador zeharbidearekin lotuko dute alde batetik, eta "AYA" lantegiaren gainetik Gudarien bidearekin, bestetik. Maiatzean, Udalak etxez etxe galdetuko du ia elgetarrek zein behar dituzten, eta Elgetako enpresetan lanean dihardutenetatik zenbat leudeken etxea erosteko prest.

ANTZUOLA | URBANIZAZIO LANAK



## Kalebarrenetik frontoirako bidea

Kalebarrenen dauden bi garaje zahar botako dituzte horretarako. Aurrekontua onartuta dago, eta proiektuaren zirriborroa ere egin dute. Garajeetako jabeekin berba egin, eta akordio batera iritsi dira. Behin garajeok erosten dituztenean, lanekin hasteko asmoa du Udalak. Pare bat hilabete barru izango da hori.

AINTZANE IRIZAR

Erdiko kale, 32
ARRASATE
Tel.: 943 79 16 12
Gizonak
Emakumeak
LUKO
JANTZIAK
Ibai-arteren bazkide

COMERCIAL BRUNET


Ozaeta, 11-13 behea • BERGARA • Tel.: 943 76 31 52

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko apirilaren 20a

## Zabalik



XABIER LETONA

# A tu casa vasco

**Txikitatik nire inguruan jende jator moduan ikusi izan ditugu nafarrak. Burugogorrak bai, eta astakilo samarrak ere bai, baina sanokoteak, zintzoak, lagunaren lagun handiak, jatunak... tira, anai-arrebak. Entzundakotik eta leitutakotik, Aitaren Etxea ikusi izan dugu askok Nafarroan, erresuma doinu miresgarriko lurralde zahar hartan. Araba tartean eta, hala ere, gertu Urbasako pagoa, umetako eta gaztetako jolasleku; Araba eta Sakana tartean, urrun antzinako Iruñea, geroago aldarrikapen eta parranda gune. Eta Erribera? Benitok kantatutako abestiaz aparte, zer ote zen Erribera? Berdin zen, berdin da, geuk ere erregeak izan genituen Nafarroan, ez nafarrek bakarrik, geuk ere bai, geureak ere izan ziren eta. "Navarricos". Eta barre egiten genuen.**

**Urbasapetik pasatu, Sakana eta Arakil bailarak zeharkatu, Irurtzun atzean utzi, Iruñean sartu eta autoa aparkatu nuen portalpean duela lau urte eta lau hilabeteko egun arrunt batean. Hurrengo egunean fruta-dendan "que los vascos son buena gente" entzun nuen. Aste batzuetara "que de donde eres" "y que de Mondragón", "a vasco, como yo, yo de Araia", dendariak. Igogailuan gora "lingua navarrorum" gure ezpainetan, harridura keinua igoera kidearenetan. Hurrengo batean serio begiratzen ziguzte. Eta hilabete batzuetara "a tu casa vasco". Bihotza saltoka iratzartu zen goizeko zortzietan; autoaren atean itsatsitako 'postit' laru horietako batean zegoen idatzia: "A tu casa vasco". SS matrikula nuen. Horregatik ote? Edo kopetilun horietako batek euskaraz entzun zigulako? Batek daki eta gainera berdin zait; edo ia-ia berdin. Hori bai, mendebaldeko nafar hau ekialdeko Nafarroa ezagutzen ari da, benetakoa.**

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

## Odolaren mintzoa

Hausnarketarako astirik izaten duzue? Zer iruditzen zaizue gizarte moderno honek darabilen martxa, norantza? Modernitatea, modernitatea, norantza? Modernitatea. Hau geldiezina ote? Zerbait serioa gaizki doa eta ez da inon ageri. Dago, baina ez dago, tentelarenak egin eta aurrera (edo tentelarena gaixotasun kronikoa da?).

Lehertuko da bai egunen baten, arriskutsua izango da, baina hobe-hobe horrela, modernitatearen hitzontzikeriekin itsu gabiltza-eta. Ez omen dago ("omen") ideologiarik gai denik zutik irauteko denbora luzez, edo arazoa da estresa eta ez giro ez gaitasunik gozatzeko ideologia sakonetan?

Argi!, dena ez dago idatzirik. Erlijio liburuak aspaldikoak dira, ideologia liburu asko zaharkituta dago, baina bai, gizakia bere sustraian beti izango da antzekoa, baina gorabeherak, ez dezagun itxaropena galdu.

Nik hala ikusten dut. Modernitatetzat, arazoa itzela da, psikologikoa. Nahasten da erlijioa, osasuna, politika, hezkuntza, gizalegea, hierarkia. Denetatik hartu behar da irteeraren zergatiak azaltzeko. Zergatik irten behar gara zulotik? Deabrua delako, sormena antzu egiten duelako eta ez da osasuntsua, gogoaren zapalkuntza delako, sentimendua berrindartzeke ustiatu egiten duelako, baimenarekin hanka sartu genuelako, zientzia dena ez delako ona, modernitatea delakoan arrunkeria delako, nahi izan arren ezin delako hobetu, tentazioaz (mediokritatera eramaten gaituen grina) askatu behar garelako, eta abar, eta abar... Iraultzarako gertatu, buruzagiak dio eta.

Ze iraultza? ze arazo? Galdetzen du inozotxoak. Hara! Juli Kernek ere ez zuen asmatu makinak humanismoa hartuko zuenik, gizatasunaren saminez. Gehiengoa astindu beharra dago, kontzientzia astintze itzela izango da. Telebista, irratia, kaseta, diskoa eta interneten pelikulak debekatzea, iraultza. Loratu dadin gizatasuna berriro isil bedi makina humanismoa. Mundu guztian.

Iraultza!¿ dio inozotxoak. Zelan hasten da iraultza eta? Liburuak idatziz ala paper mahai eta aulkiz militante bila joanez plazara? Modernitatea, modernitatea, modernitatea...

JUAN OTERO IRIBARREN
Fontkalent

## Dona, Dona, Katona!

Maiatzaren hamahiruan, badirudi hauteskundeak beharrean zinema jaialdi bat izanen dela EAEn.

PPk eta PSOEk aurten ere dramazko filme bat aurkeztu dute lehiaketara, baina oraingoan ere kutsu dramatikoagoa eman diote; betiko biktimismoaz gain, beste osagai batzuk gaineratu dituzte beren istorioan: Euskal Herria inoiz baino totalitario eta eta basatiagoa agertzen dute. Pertsonaiei dagokienez, globalizatzaile on lez, Estatu Batuetako estiloa hartu dute aintzat: alde batetik, herriaren suntsitzaileak diren euskal gazte erradikalak daude, (gaiztoak) eta bestetik, Euskal Herri gaixo honetara bakea ekarriko duten heroi ausartak (onak): beraiek, alegia.

Ez daude, ez, hiruharren sariaz konformatzeko prest, eta filmaren testuinguruari errealitate kutsua emateko laguntza eskatu diete beti alboan izan dituzten indar polizialei: Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta Ertzaintzari. Azken hauek lan paregabea betetzen ari direnik ezin dugu ukatu, joan diren egunetan egin dituzten atxiloketak ikusi besterik ez dago. Istorioari "Rambo" ikutu bat ere ematen diote. Ertzaintzari suertatu zaio lanik zailena: herriko zaindari lez, herrian beldurra eta kaltea eragiten duten animalien aurka ere neurri gogorrago eta zikinagoak hartzeko agindu diote. Eta hor dabiltza gizarajoak, beren gogoz kontra, "dona, dona, katona..." komisaldegietako ikuiluak bete eta husten. Benetan ekarpen handia egiten ari dira, galdeketak, jipoiak, tortura psikologikoak egiten dizkiete euskal gazteei, pertsonaia nagusi bezala betetzen duten papera ondo ikas dezaten.

Eta demokraziaren audientzietatik pasa eta gero, zortea daukanari, istorio honen guztiaren mesedetan fidantza txiki bat ordaintzeko aukera ematen diote, gainera.

Komunikabideek ere aspaldi erosi zituzten film honen eskubideren batzuk, eta espainolen produkzio berritik ahalik eta probetxu gehien ateratzen dute. Albistegiak entzutean, Euskal Herrian ehiza garaian gaudela ematen du: gurera bakea elkarri behar duten santu horiek gizon eta emakume odolzaleenak harrapatzen dituzte egunero. Euren berrietan, filmeko sekuentzia txikietan, Euskal Herriaren salbatzaile sentibera horiek ez dute gugan errepresiorik eragiten, ez dute adierazpen askatasuna bortxatzen, ez dute euskararen aurkako erasorik egiten, ez dute euskal presoen eskubideen aurkako neurririk hartzen... eta gainera, euskal gazteok Euskal Herrian zeregin handia dugula oso argi daukate. Horregatik, hain zuzen ere, zigortzen gaituzte hain barneratuta duten bortizkeria, basakeria, krudelkeria, bidegabekeria horrekin. Argi dago kalte egiten diela gazteok Euskal Herriaren alde egiten dugun lanak, eta are argiago dugu guk zein den gure ardura eta gure bidea aspaldian hasi zen istorio honetan. Ez gaituzte gurea ez den paper hori betetzera behartuko! Utz gaitzatela bakean gure "historioa" eraikitzen!

HAIKA
Arrasate

Gutun gehiago 8. orrialdean

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



## HILDAKOAK

**Josefa Garcia Pilar**
Eskoriatzan, martxoaren 31n,
88 urte zituela.

**Elena Urdangarin Juantorrena**
Arrasaten, apirilaren 5ean,
96 urte zituela.

**Rosa Bernal Redondo**
Oñatin, apirilaren 6an,
70 urte zituela.

**Julian Etxebarria Zubia**
Oñatin, apirilaren 7an,
91 urte zituela.

**Sabina Agirregabiria Bengoa**
Eskoriatzan, apirilaren 8an,
84 urte zituela.

**Pilar Erdabide Etxaniz**
Bergaran, apirilaren 9an,
82 urte zituela.

**Jose Maria Uribe-Etxeberria Azkarate**
Bergaran, apirilaren 9an,
71 urte zituela.

**Fernando Aguriondo Basabe**
Arrasaten, apirilaren 10ean,
84 urte zituela.

**Gregorio Beitia Zabala**
Gatzagan, apirilaren 10ean,
79 urte zituela.

**Sor Consolacion Orbegozo Uranga**
Aretxabaletan, apirilaren 12an,
72 urte zituela.

**Aurea Barreiro Gonzalez**
Bergaran, apirilaren 12an,
74 urte zituela.

**Isabelino Perez Amigo**
Arrasaten, apirilaren 13an,
72 urte zituela.

**Jose Altube Aranguren**
Aretxabaletan, apirilaren 13an,
73 urte zituela.

**Aurea Novoa Lopez**
Oñatin, apirilaren 13an,
84 urte zituela.

**Manuela Alberdi Azkarraga**
Eskoriatzan, apirilaren 14an,
81 urte zituela.

**Jacinta Arana Maiztegi**
Oñatin, apirilaren 14an,
87 urte zituela.

**Crescencio Vicario Prieto**
Arrasaten, apirilaren 16an,
70 urte zituela.

**Lucio Agirrezabal Zangitu**
Bergaran, apirilaren 16an,
67 urte zituela.

**Eduardo Alonso Rodriguez**
Gatzagan, apirilaren 18an,
65 urte zituela.



**Julen Murgiondo Eizagirre** elorregiarra **Irati** arrebarekin eta **Ane Miren** amarekin, urretxuarra azken hau. Julen apirilaren 4an jaio zen, eta 3,100 kilo pisatu zuen. **Imanol** da aita, elorregiarra bera ere.



**June Billar Lumbreras** eta **Arrate** ama, mondragoetarrak biak. June apirilaren 2an jaio zen, eta 3,110 kilo pisatu zuen. **Josu** da aita, mondragoetarra bera ere.



**Ane Etxabe Isasmendi** atxabaltarra apirilaren 4an jaio zen, eta 3,400 kilo pisatu zuen. Gurasoak **Izaskun** eta **Alberto** dira, atxabaltarrak eurak ere.



**Ioritz Astaburuaga Zabalo** mondragoetarra apirilaren 5ean jaio zen, eta 3,100 kilo pisatu zuen. **Arantza** eta **Aitor** dira gurasoak, mondragoetarrak biak.



**Jon Nogales Hernandez** mondragoetarra eta **Baldo** amama. Apirilaren 7an jaio zen, eta 3,650 kilo pisatu zuen. **Andoni** eta **Nati** dira gurasoak, mondragoetarrak biak.



**Asier Lopez Soto** eta **Rakel** ama, bergararrak biak. Asier apirilaren 9an jaio zen, eta 3,190 kilo pisatu zuen. **Jose** da aita, oñatiarra.



**Jonathan Martin Hidalgo** eta **Ana** ama, oñatiarrak biak. Jonathan apirilaren 7an jaio zen, eta 3,760 kilo pisatu zuen. **Alex** da aita, oñatiarra bera ere.



**Ane Martin Pineda** eta **Jabi** aita, bergararrak biak. Ane apirilaren 7an jaio zen, eta 3,370 kilo pisatu zuen. **Ana** da ama, bergararra bera ere.



**Aitor Sanchez Alonso** atxabaltarra eta **Edurne** ama, mondragoetarra. Apirilaren 9an jaio zen Aitor, eta 2,970 kilo pisatu zuen. **Jabi** da aita, mondragoetarra.



**Markel Benito Sendin** mondragoetarra **Juana** amamarekin. Apirilaren 12an jaio zen Markel, eta 3,480 kilo pisatu zuen. Gurasoak Maria eta Luis dira, Salamancakoa ama eta mondragoetarra aita.



**Juanito Irazabal "Oleikua"** eta **Mertxe Elortza "Axulakua"** ezkondu zirela 50 urte bete ziren hilaren 14an. Hala ere, bihar, zapatua, ospatuko dituzte urrezko ezteiak euren senitartekoekin. Lehenengo meza izango dute, eta gero, bazkaria. Hortaz, zorionak, bikote, familiaren partetik eta Intxortako domeketako lagunen partetik!



**Maria Edroso Rueda** eta **Miguel** aita, bergararrak biak. Apirilaren 10ean jaio zen Maria, eta 2,660 kilo pisatu zuen. **Marta** da ama, bergararra bera ere.



**Ekain Eriz Olon** eta **Naiara** ama, eskoriatzarrak biak. Ekain apirilaren 14an jaio zen, eta 3,510 kilo pisatu zuen. **Gaizka** da aita, eskoriatzarra bera ere.



**Anne Zengotita Albisua** eta **Ana Jesus** ama, bergararrak biak. Anne apirilaren 15ean jaio zen, eta 3,030 kilo pisatu zuen. **Iñaki** da aita, elgoibartarra.



**Alaitz Ortueta Del Fresno** eskoriatzarra eta **Arantzazu** ama, atxabaltarra. Alaitz apirilaren 16an jaio zen, eta 3,250 kilo pisatu zuen. **Mikel** da aita, eskoriatzarra.

### ESKER ONA

## Pilar
## Erdabide Etxaniz



Bergaran hil zen
2001eko apirilaren 9an.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Paula
## Mugarri

Ixil-ixilik eta apal-apal
udaberri atarian
bidali duzu gureganaino
agur bat hari-harian
ez dugu izan despeditzerik
pena bat henen erdian
hutsune bat bihotzean
gelditu da agerian
zauden tokian indar eta argi
lagun egiguzu bizian
muxu haundi bat Paula Mugarri
elkartu arte bidian.



### II. URTEURRENA

## Julen
## Arzelus F. Arroiabe

*"Txarriduna"*



Meza, domekan, apirilak 22,
11:30ean,
Bergarako Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

# Hitz gezidunak

Luma




# Bila-bila 7







# Umore giroan

Izaro Aperribai

**JATETXEAN**

Andra-gizona herriko jatetxerik ospetsu eta onenera joan dire, ezkondu zireneko zilarrezko ezteiak ospatzera. Afaltzen dabiltzala, gizonak zerbitzariari:

— Baina, zer demontre egiten dau euli honek zopan?

— Ba, ez nago oso ziur, baina uste dot tximeleta igerixan dabilela.

**OPORRETAN**

Katalan batzuk joan dire Israelera oporretan, eta Jesus ur gainean ibili zan Jordan ibaia bisitatzera juan dire. Kristautasuna eta Biblia direla-eta, turista asko ibiltzen da bertan. Errekaren ondarrian txartel bat ikusi dabe: "Ordu erdiko bidaia itsasontzian: 50 dolar". Berrogei laguneko taldia izanda, prezioa merkatzia eskatu dotse txartelak saltzen dabilenari. Honek, ostera, kasorik be ez. Eta taldeko katalan batek txartel saltzailiari:

— Hau itsasontzi garestixa hau, ez naiz harritzen Jesukristo be ur gainian oinez ibili izana, prezio honekin...

**TRENA**

Badoa Patxi trenean, eta hurrengo geltokira heldu direnean, trena gelditu egin da. Jaitsi da trenetik eta zaintzaileak esan dotsa:

— Zu, trena ez da, baina, hemen geratzen!

— A, ez? Eta zelan jaitsi naiz ni, ba?

# Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



## Zein herritan dago kalefazio zentral gutxien?

1996ko erroldaren arabera, Debagoieneko etxeen %60 inguruk zuten berogailua. Horietako gehienek banakako kalefazioa zuten, baina zenbait herritan kalefazio zentralak ere ugari omen dira. Arrasaten, esaterako, etxeen %19,7k zuten kalefazio zentrala. Baina, zein herrik ote du kalefazio zentralen proportzio txikiena?

- Leintz Gatzaga
- Aramaio
- Oñati

**Erantzun zuzena:** Oñati (%1,5), Aramaio (%3,9), Leintz Gatzaga (%5,1)

### Soluzioak





# Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Egunotan energia eta bizinahi handia izango dituzu, eta une oso dibertigarriak izango dituzu zure lagunekin. Zure sormena edo gaitasun artistikoa garatzeko garai aproposa.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Zure kontuetan eta harremanetan izan ditzakezun tentsioak tentsio, egun egokiak zure egoera fisiko nahiz animikoentzat. Eginbeharrak etxean.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Zure astia eta ideiak familiari zuzentzeko moduan zaude, baita bihar-etzirako planak egiteko. Izan zaitez naturarekin harremanetan, gauzak hobeto ikusten lagunduko dizu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Diru arazoak argitzeko egun egokiak. Zure ekonomia bideratzeko egitasmoren bat prestatzea komeni zaizu, nahi ez duzun sorpresarik ez izatekotan.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Lanerako une egokian zaude. Bidaiaren bat egitekotan bazara, esperientzia ikaragarria izango da. Agian, espero ez duzun elkartze erromantikoren bat izango duzu.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Egunotan kontu handiz ibili esaten duzunarekin, eta batez ere, gauzak egiteko moduarekin; zure kritikak ez dituzte behar bezala kontuan hartuko. Hori bai, lagunak alboan izango dituzu behar dituzunean.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Lan arloan esperantza handiak; behar gehiago eta ekoizpen handiagoa izan ditzakezu. Une egokia da indarra bildu eta aldarte onean egoteko.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Zuhur jokatu zure nagusiekin, eta ez eman georago zu edo beste norbaiten aurka erabil dezaketen informaziorik. Zure bikote kidearekin jeloskor eta posesiboa izango zara.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Jendarteko bizitzak bidaiatzera bultzatuko zaitu, baita zure bizimodua aldatu eta pixka bat osasuntsuagoa egitera ere. Ez egin hainbeste astakeria zure osasunarekin.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Saiatu egunotan larregi ez pentsatzen. Lagunekin, opariak eta konponbideak ekarriko dizkizuten aukera onak.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Zure gustukoa ez den edo zure gainetik dagoen jendearekin liskarrik ez izaten ahalegindu. Ikasketetan edo kultura jardunetan erraztasun handiagoa izango duzu, baita sariren bat ere.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Egun garrantzitsuak zure ekonomiarentzat. Bestalde, egunotan, espero ez zenuen baten batekin egingo duzu topo, eta horrek mesede egingo dizu.

GIPUZKOAKO ASTROLOGI ELKARTEA


Goienako kanpo produkzioak
Gure unitate ibiltaria zure esku
Goitb
Goiena Telebista
Ford
MUGARRI
Goiena
Jaialdiak
Antzerkiak eta musika
Hitzaldiak, batzar orokorrak,
Kirolak: futbola, pilota, eskubaloia, saskibaloia
BATZAR OROKORRA
100
80
60
40
20
Aurrekontua eskatu
Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
Merkataritza saila: Nafarroa etorbidea, z/g 20500 ARRASATE • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • publi@goiena.com

# Goiena Telebista

Posta elektronikoa: goitb@goiena.com

## Telebegi

### *Dena prest*

Azken orduko albiste batek aurrez idatzitako guztia aldarazi dit. Hauteskundeak eta telebista zituen aztergai lerro hauetan, baina hauteskunde batzordeak hartutako erabakiak berria idaztera behartu nau. Hau da, idatzita nuena jokoz kanpo geratu dela. Albistea ezagututakoan interneten sartu, eta sarean dauden egunkari guztiek albistea nagusi gisa dakartela ikusi dut. Ez da txantxetakoa izango honek ekarriko duen soka!- pentsatu dut.

Hankasartze galanta EAJ-EA koalizioko abokatuek egindakoa. Ez ditut ezagutzen hauteskundeak eta komunikabideen inguruan hauteskunde batzordeak zehaztuta dituen arauak, baina zorrotzak behar dute izan. Hala ere, itxura denez, bateon batzuri artikulu guztiak irakurtzea ahaztu zitzaien moduan, beste batzuk goitik-behera irakurri dituzte denak.

Albisteak duda barik garrantzia du, eta horrek garbi uzten duen gauza bakarra zera da: gero eta gehiago komunikabideetan erabakitzen direla hauteskundeak, eta doaneko tarte horiek, askotan zapping eginez ikusten ditugunak, euren erakarpena dutela.

Artikulua berridazten ari naizen heinean, esaldi berriek zaharrei tokia kentzen diete. Hala ere, azken esaldiekin geratzen naiz. Finean, hasieratik plazaratu nahi nuen ideia hauxe zen: ea imajinatzen duzuen hauteskundeei futbolari ematen zaion tratamendu antzekoa ematea. Hau da, telebistek eta baita irratiek ere mitin batzuk zuzenean eskaintzeko aukera izatea. Ez esan bat edo beste ikusiko ez zenutenik, nahiz eta bat edo beste entzun ostean tripakomiñez bukatu.



# Maider Osa/'Berriak' saioko aurkezlea

**GOITBko aurpegirik ezagunena dugu Maider Osa arrasatearra. Arratsaldero, Debagoienean izaten diren berriak aurkezten ditu albistegian. Aisialdian, mendira joatea eta lagunekin egotea du gustuko. Eta hori guztia gutxi ez balitz, doktoretza ateratzen dabil EHUn.**

**Noiztik albistegietako aurkezle?**

1998ko irailean hasi nintzen aurkezle lanetan. Kazetari bat hartzekotan zeuden ATBn, eta hainbat proba gainditu ostean ni aukeratu ninduten.

**Zein aldaketa nabaritu duzu ATBtik GOITBra?**

Nik, nire kamera aurreko lanean ez dut aldaketa handiegirik nabaritu. Ni kamera aurrean jartzen naizenean ez dut pentsatzen zenbat eta zein herritako biztanleak dauden albistegia ikusten. Hala ere, kazetari bezala beste herri batzuetako berriak egin behar izan ditut, eta horrek denbora gehiago eskatzen du. Bergarara joan behar bazara, errepidean, esaterako, denbora asko galtzen da.

**Zer behar da aurkezle ona izateko?**

Kamerari errespetu pixka bat eduki behar zaio, baina ez neurriz kanpokoa.

**Zein albiste aurkeztuko zenuke gustura?**

Goiena komunikazio zerbitzuetako kooperatiban sartzeke geratu diren herriek, sinatu dutela egitasmo honetan parte hartzeko hitzarmena.

**Eta zein da aurten eman duzun albisterik penagarriena edo desatseginena?**

Frai Rufinoren eta Felix Iñurrategiren heriotzak. Bi berri horiek, gainera, egun berean eman nituen.

**Zein da albistegia aurkeztu aurreko zure lana?**

Lehenengo eta behin niri egokitzen zaizkidan albisteak egiten ditut. Gero, albisteak aurkezteko, ile apaindegira joan, makillatu eta albisteak aurkezteko arropa hartzen dut dendatik. Azkenik, erredakzio buruarekin batera, albisteen garrantzia zehaztu, eta horren arabera albistegiaren ordena finkatzen dugu.



*"Kamarari errespetu pixka bat eduki behar zaio, baina ez neurriz kanpokoa"*

**Zuzeneko saioa da zurea, urdaritasunik sentitzen duzu oraindik?**

Beharbada gutxiegi, tentsio puntu bat edukitzea beti izaten da komenigarria.

**Behin baino gehiagotan barrea ezin eutsi gelditu zara, zaila da horrelakoetan aurrera jarraitzea?**

Bai, oso zaila da. Horrelako egoeretan inguruko jende guztia barrezka dago, baina kontua da, ni izaten naizela kamera aurrean dagoen bakarra. Gainera, ikusleak ez du jakiten zein den ni barrezka egotearen arrazoia.

**Zer eskaintzen dio zure ustez telebistak herriari?**

Informatuta egoteko aukera, duda barik. Bailarako informazioa jasotzeko, uste dut, gu garela iturririk onena eta fidagarriena.

**Etorkizunean non eta zertan ikusten duzu zeure burua?**

Auskalo, egunean egunekoa bizi dut eta gero gerokoak!

goitb Goiena Telebista

## Asteko programazioa / Apirila 23-29

| ASTELEHENA 23 | MARTITZENA 24 | EGUAZTENA 25 | EGUENA 26 | EGUBAKOITZA 27 | ZAPATUA 28 | DOMEKA 29 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:40 **Aurrez aurre** Juan Villar tailagile elgetarra elkarrizketatuko du Iban Arantzabal kazetariak<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Goienasport** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Goienasport** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Aurrez aurre** Iñaki Mata antzuolarra elkarrizketatuko du Imanol Larreak. Iñakiren eskutik antzerki mundua ezagutu ahal izango dugu, bere bizitza oso loturik baitago antzerkigintzarekin | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Aurrez aurre** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Mahaiaren bueltan** Garapen jasangarria eztabaidagai hartuta, Xabier Zubizarreta, Antxon Mendizabal eta Juan Jose Askasibar jarriko ditu Monika Belastegik mahaiaren bueltan | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Mahaiaren Bueltan** (errepik.)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Sarrera doan** Asteburuko ekitaldien berri izan nahi baduzu eta gainera bertara joateko sarrerak doan jaso nahi badituzu, ez ahaztu hitzordu hau<br>21:35 **Soinuz Blai** | 13:30 **Albiste aurrerapena**<br>13:40 **Gatza eta berakatza**<br>13:50 **Sarrera doan** (errepikapena)<br>19:45 **Gatza eta berakatza**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Non-zer**<br>20:35 **Berriak**<br>21:05 **Astebete**<br>21:35 **Soinuz blai** Punta puntako musika taldeen azken bideo klipak ikusteko aukera duzu, Haika eta Mirenek aurkeztutako saio honetan | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Aurrez aurre, Mahaiaren bueltan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* | 13:30 **Saioen errepikapena** *Gatza eta berakatza, Aurrez aurre, Mahaiaren bueltan, Sarrera doan, Soinuz blai, Astebete* |

**Goienkaria**
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com.
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak



## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Pello Zabala/Frantziskotarra

**Noiztik Arantzazun eta zergatik?** — 1943an etorri nintzen, 10 urte nituela. Bi urte lehenago etorri nahi nuen, baina 10 urte behar ziren sartzeko. Txikitan, elkarren lagunak ginen laupabost familia etortzen ginen kamioi baten, eta izugarri gustatzen zitzaidan hau. San Inazio egunean ere, amamarekin etortzen nintzen, peregrinazioan. Behin, Arantzazun, mutiko artean hazi nintzen, eta 15 urterekin abitua jantzi nuen. Gero, eskolak eman nituen ikastetxean: musika, hizkuntzak... eta hura itxi ondoren, komentuan.

**— Ikastetxean esku gogorra izatearen fama zenuten batzuek...**

— Garai hartan, diziplina behar-beharrezkoa zen. Batzuek ez zuten horretarako balio, eta mutikoek gaina hartzen zieten. Baginen hiruzpalau serioagoak, eta dezente sufritzen genuen goitik zetorkigun diziplina horri eutsi beharrarekin, ikusten genuelako hori ez zela bidea.

**— Tenporak ala satelitea?**

— Satelitea, denbora gutxi barru izango dugun eguraldiaren berri emateko, eta tenporak, luzerako.

**— Udaberrian, zuri ere odola berotzen zaizu?**

— Nik ez diot horrenbeste erreparatzen neure buruari. Txoriak, landareak... begiratzen ditut gehiago.

**— Emakumeek estimu handian zauzkate.**

— Irratiko langileak, batez ere, emakumezkoak dira, eta gero egokitu zait telefonoz eta eguraldia esateko orduan harremanetan egotea. Nik belarri fina dut, eta emakumeen ahotsari eta emakumeei estimu handia diet, baina distantzia baten.

**— Jainkoari zein hiru gauza eskatuko zenizkioke?**

— Oso gutxi eskatzen diot; batez ere, eskertu egiten dut. Dena dela, gure herrian beharrean daudenekin asko gogoratzen naiz, presoekin-eta.

**— 'Naturaren mintzoa'k zer xuxurlatzen dizu?**

— Natura begietatik, usaimenetik eta, batez ere, belarrietatik barneratzen da, eta Naturaren mintzoa idaztean barrua izugarri aberastu nuen.

**— Zein etorkizun ikusten diozu Arantzazuri?**

— Fraideok ez gara gai izango hau lehen bezala atenditzeko, eta Euskal Herrian honen kargu egingo den elkarteren bat izango denez, inoren eskuetan uzteko txukun samar utzi nahi dugu.

**— Bada esaera zahar bat, "Arantzazuko fraideek baino gehiago eskatzen duzu" diona.**

— Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa aldean jendeak emandakoarekin hazitakoak gara asko eta asko. Herri batzuk fraidearen zain egoten ziren urteroutero, eta bildots edo ardiren bat ematen zuten. Orain, ez dugu horrenbeste eskatzen.



**"Jainkoari oso gutxi eskatzen diot; batez ere, eskertu egiten dut"**

**"Begietatik, usaimenetik eta, batez ere, belarrietatik barneratzen da natura"**

**"Satelitea, denbora gutxi barru izango dugun eguraldiaren berri emateko, eta tenporak, luzerako"**

► *Amezketarra / 57 urte / Eguraldi iragarlea*

## AIPAGARRI



**MAIDER ARRIZABALAGA**
**Bergara / Jarduneko lehendakaria**

Bergarako Jardun euskara elkarteak urteko batzar orokorra egin zuen Aste Santu aurretik, eta besteak beste, lehendakari berria aukeratu zuten bazkideek. Urteetan jardundako Jose Angel Mikeoren ordez, Maider Arrizabalaga, 27 urteko nekazari ingeniaria, izendatu zuten lehendakari.



**JOHANA MADINABEITIA**
**Oñati / Diseinatzailea**

Diseinatzaile oñatiarrak (24 urte) uda-udazkeneko moda erakutsiko du Donostiako Aquariumean, maiatzaren 2an. Moda Vasca elkarteak antolatutako desfilean, 18 eta 30 urteko emakumezkoendako moda erakutsiko du, denera, 20 bat jantzi. Johanak Oñatin dauka tailerra eta hantxe egiten ditu diseinuak, patroiak eta mozketak.

DONOSTIAKO AQUARIUMA



%10

-eko deskontua sarreran txartela hau erakutsiz. Donostiako Aquariuma ikusteko aukera ezin hobea duzu!

AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

ORDUTEGIA:
• 10etatik 20etara.
• Lehiatila ordubete lehenago itxiko da.